

Gizarte mugimenduak, nazioa eta demokrazia

EUSKAL Herria gune pribilegiatua da 'herri mugimenduak' bere zabalera eta dibersifikazio osoan, sortu eta garatzeko. Honelakoak dira, gehienbat, mugimendu horiek:

— zerbitzu komunitarioak eskeintzeko gizarte erakundeak, azpiegitura sendo batez osatuak, eta neurri desberdinetan erakunde-sareetan integratuak

— funtzionamendu finkozko herri erakundeak aldiberean zerbitzuemate eta kontestatzaile-alternatibo gisa aritzen direnak

— izaera lokaleko hiri erakundeak, lurraldeari dagokion beharizanak betetzen dituztenak

— izaera bereziko gizarte mugimenduak, problema puntualak bideratzeko sortuak

— antolamendu zibilak, oraingoz eduki politikorik gabeak, eta alor sozial asko hartzen dituztenak.

Aipaturiko zenbaitek, ibilbide luzea dute dagoeneko; beste batzu —sortzez zahar xamarrak izan arren— berriztatu egin dira azken aldian; asko, 80. hamarkadan sortuak dira, estatua eta euskal gizarte zibilaren arteko enfrontamenduaren gordintasunaren arabera.

Herri erakundeek, zenbait funtzio betetzen dituzten gure Herriaren egungo errealitate sozio-politikoan:

— Lehenik, gizartearen konzientziaren ardatz, ekintza kolektiboen zereginetan eskuhartzaile di-

ra. Beren lana honetan datza: helburu jakin batzu eskuratzean eta, erreferentzizko sistema sozialaren parte diren botere politikoak, administrazio publikoak edota erakunde politiko-sozialek defendatzen dituzten helburuen alde, desberdinak, opoatuak edo enfrontatuak diren zerbitzu komunitarioak eskeintzeko ahaleginean. Iturri sozio-politiko desberdineko —baina interes amankomunean defentsan bategindako— pertsonentzat, topaleku eta interbentzio-leku dira. Herriaren bizikeran, masen protagonismo zuzenari bide emateko jomuga dute.

— Bigarrenik, herri mugimenduak —gero eta gehiago— Euskal Herriaren birreraikuntza nazional eta sozialaren prozesuan subjektu dinamizatzaile dira. Kontzientzia nazionalaren ardatz dira, zentzu honetan. Euskal Herriaren subiranotasun sozio-politikoaren lortzeko bidean antolatzen diren ekintzak hedatu, sustatu eta partizipatzeko, gune sozio-politiko preziatuak dira. Partidu nazionalistek, barne gatazkak konpontzeko eta ahaleginak oro aipatu helburura bideratzeko ezintasunaren aurrean, gizarte mugimenduak herriaren gurari eta premiak uztartzeko elementu nagusi bilakatzen dira. Duten konposaketagatik, gune politikoa mila zatitan banatzen dituzten lotura partidistetatik aske, gure herriaren burujabetasunaren bidean erreferentzi-gune eta indar-metaketa izateko xede garbia dute.

— Hirugarrenik, gizarte mugimengu zenbaiten jokoerak, geroan, demokrazia formal parlamentarioa, partidu bakarra edota herri demokrazia orgnikoaren mugak gainditzeko modua erakusten du. Demokrazia eskuhartzaile hitzarekin politika egiteko modu berria adierazi nahi dugu, zeinak oinarritzko erabaki politikoetan masa antolatuek parte har dezaten bideratzen duen. Honelako demokrazian antolaketa-era desberdinak uztartzen dira, demokrazia ordezkatzaileari eta herri-eskuhartzaileari dagozkion moduak nahastuz. Formulazio berri honetan gizarte gatazka ez dira desagertzen, baina indarrezko konfrontazioa ekiditen da lege-mekanismoz arauturik. Tendentzia honen gauzatzea —sortuberria baino ez— Euskal Herriko gatazka politikoaren garapenaren arabera dago. Egun ohizkoa den antolaketa soziala eta politikoaren moduari dagokion prozesu dialektikoa da hau eta, egungo indar erlazioetan, aldaketa nabarmenak suposatzen du. Indar sozialen dinamismoa, erabakiorra izango da, aipatu aldaketaren ildoak, edukia eta mugak finkatzeko.

JEXUXMARI ZALAKAIN

JOSE LUIS HERRERO

EHU-KO INFORMAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEKO IRAKASLEAK

Amerindiar abertzaleak

BOSTEHUN urteren mespretxutik ari dira Andetako 'azalgorriak' jalgitzen, nortasunera, harrotasunera ernatzen. Zorionak, baita bakoitzak zuen gisara zuen kultura berezietan eta hizkuntza bakar batekin azaltzen baitzate.

Cañaritarrok, Boliviatik aintziña etorritakoak, zuen eskaeren ardiesteko, Ecuadorearekin hautsi eta Perurekin jarriko zaretela diozue, baldin amerindiar guztion hamazazpi eskaerak estarduak ez baditu betetzen eta jadanik Amazoniaren aldetik Péruk Ecuadorari bere lurren herena kendu ziola dakigularik ez da txantxetako politika zapa. Gero beren herrialdean Cañari-ak ontasunez, aberastasunez mestizoen gainetik eta criolloen gainetik igotzen ari dira, EEBBtan ospe ona bildurik, handik dollar ederrekin itzultzen direlako; bai gaitzenez 'grindio' zaretanok beste haize bat ekartzen duzute itzultzean eta ez bakarrik etxe ederrak eginarazten.

Otavallo nazioak, zeren beren burua hala izendatzen baitute amerindiarrek, beste bide bat aukeratu dute eta haien gatik 'txuri' zakarrenek diote ez direla 'indio tonto' baina 'indio ingenioso' ezen nahiz eskulanetan, nahiz salerosketean oso trebeak baitira. Horiek ez dira hainbeste herbesteratzen, Ecuadorean bertan egotea bilatzen dute, eta beren diruarekin 'txurien' latifundiak pixkanaka erosten, beren Patxa Mama, beren eskuetara itzul dadin eta hango olerkari batek ketxuaz idatzi duen legean «Gurea zen, gurea izango da lurra».

Salasakatarak, naski, oraingotasun bideetan ez dira hain lasaiki sartu —beste etniekin berdinduz— gaizkiago bizi, etxe itsusiagotan eta oraindik askotan aberats haundien lurjabetaduna murrizteaz 'traktore bat baino askoz merkeago

baitira hamar txuntxo'. Ezkerreko gobernuak ez du eskuin militar baino hobeki egin, lehenak denei berebela eman behar zieten, honek nekazari guztiei traktoreak, bai hitzak airean, eta jazartutako amerindiarrei lurjabetasunaren erreformak lur legor ta ursalenak eman dizkiete. Haserre gorria dago etnia hortan, aldaketa gutxi baitakusate beren bizian.

Oraindik ez da galdu, criolloen eta mestizo batzuen gogotik amerindiarren irudi eta topikoa; lehenik bere baserria utzita 'villa miseriatan' bizi diren milioika indioak ez direla estadistiketan gehiago amerindiarrekoak, nahiz jatorrizko egiturak eta batzutan hizkuntza gorde dituzten, nahiz amerikar karikatuz jaunzten saiatzen diren eta amerikar musikak entzuten ere, munduan asko legez, eta Vargas Llosa ta Ciro Alegirak kondatu gisa. Ertameriketako ta Hegoameriketako guerillek kalte handirik egin badute, amerindiar komunitate jatorren desagertzea ekarri, leku askotan, bakezaleek ez dute hobeki egin eta hor proselitismuz kristau mota guztiak amerindiar gizartearen egitura, pentsa molde ta sinesteak desegiten dabilta *egia-zen izenean*; bai ikusi ditugu Amazonialdean, nola Alama etnia, misiolariak mantsotu, europartu, kristautu egin duten, karitatearen lepotik zintzilip ipiniz. Halaxe hango amerindiar jakituri zaharrak ere susmagarri eta debekagarri bihurtu egin dira. Beren 'txurikeria' horiekin, amerindiarren sende loturak, herri barreneko egiturak eta 'buruzagi zaharren' sistema hautsi egiten dute zibilizazioaren izenean.

Nazioarteko ezagutzara iritsi arren amerindiarren berezko eskabide eta eskubide arazoa, 'kaleletar' askorentzat amerindiarra 'indio edo chunchu' izena gaitzespena baita eta esan nahi baitu: zozoa, eskolagabekoa, zikina, behartsua beren za-

palkuntzaren aitzaki horiek, gogoratzen digute aspaldiko Sepulveda ta Las Casas-en arteko eztabaidak eta betiko konkisten txuripena, alegia menperatzen direnak basati, gizajale, alfer, zikin, sinestegabekoa, moralik gabekoa direla —eta haiek bortxatzen, lapurtzen, tormentatzen, hiltzen eta lan bortxazkoetan erabiltzen dituztenak berriz zibilizatuak? Holako predikua entzun nion Kanbon jaiotako frantses erakasle marxista bati, alegia, Frantziak euskaldunak basakeriatik atera ginduztela, alferkeriaren galtzen erakatsi, nekazaritza oraingotu eta irakurtzen ikasi, bai inperialista —ezkerreko ta eskuinekoak— beharrezko 'indioak' badituzte.

Harro dabilta berdin Cuenca ta Riobamba (Rikbanba) herrialdeetako criolloak alegia jatorrizko espanol aitonen semeen ondokoak direlakoan, baina berdin harro ta minbera Purahuiak diotenean Inkaren eta bere aitonen semeen ondokoak direla eta ez konkistadore lapurren ondoko. Harro zebiltzen beren zaldietan Guamotoke azokan, eta begibeltzez begiratzen ziguten ustez eta gringoak edo espanolak ginela.

Ordu zuten esnatzeko, beren hizkuntza ta kulturak galzorio bideetan sartu baino lehen ernatu dira ta criollo internazionalista ta erdirakoien oihuen gatik beren herritasunen ezagutzea eskatzen dute. Bai esan zen XXI mendean gutiengoan arazo gizaldia izango zela. Oxala ez dadila izan gehienen desagertzea, Estatu haundiek nahi luketen gisa!

TXOMIN PEILLEN

IDAZLEA

BERRIAK ZIRI



FRANÇOIS MAITIA
Pyrénées Atlantiques departamentuko sozialisten idazkaria ARGIA

«Egia da amnistia izan dela kortsikarrentzat, guadalupetarrentzat eta beste batzuentzat, baina horiek bortizkeria baztertu dute»



NICOLAS REDONDO
UGTko idazkari nagusia TIEMPO

«Espainiako gizartea gaur egun 1982an PSOE agintean jarri zenean baino injustoagoa da»



SPIKE LEE
Zine-zuzendaria EL MUNDO

«Zuriek betidanik adoratu izan dute beltzen kultura»



MERCE SALA
RENFEko lehendakaria EL CORREO ESPAÑOL

«Espainiako Garraio Ministeritzari dagokio euskal Y-a egiteko erabaki politikoa hartzea»

ZAKILIXUT

© Olariagak

To!

22,00 Al día
Presentado por José María Calleja. Incluye un coloquio sobre racismo entre Blas Piñar de la extrema derecha y Xabier Rupert de Ventós, eurodiputado, con la presencia de marroquíes, gitanos y un vecino del barrio de Entrevías cuyos habitantes protestaron contra el asesoramiento de gitanos. Debatirán sobre reconversión económica Unai ERTetxe, viceconsejero de Industria; Carmen Gallastegui, ex consejera de Economía; Javier Hernández Bilbao, secretario general de Confesbank; Carmelo Urdangarín, periodista, y los secretarios generales de ELA, UGT, CC.OO y LAB. Además Carlos Garaikoetxea, de ETB, responderá

IRAULTZA!...

EA,...

KLIK